

PORTUGALETEKO UDALAK ABIAN JARRIKO DU 67 HERRITAR SEI HILABETEZ KONTRATATZEKO ENPLEGU PROGRAMA BAT

Portugaleteko herritarrek izena eman dezakete Lanbideko bulegoko enplegu-eskaintzetan urriaren 24tik 31ra bitartean.

Portugaleteko Udalak gaur aurkeztu du Eusko Jaurlaritzak onetsitako Urteroko Enplegu Plana langabeziari aurre egiteko estrategia garatze aldera.

PORTUGALETEKO ENPLEGU PLANA

Aukeratutako hirurogei ta zazpi lagunei lan-kontratu bat egingo zaie. Iraupena SEI HILABETEKOA izango da.

Planak 19 proiektu burutzea dakar. Proiektuok 14 Udal saili dagozkio.

Planaren kostu osoa.....823.354 € (2017.urtea: 671.038 €)
Lanbideren diru-laguntza.....640.684 € (2017.urtea: 561.992 €)
Udalaren ekarria.....185.669 € (2017.urtea: 109.046 €)

Kopuruak 2018an onetsitako aurrekontuari eta 2018ko aurrekontu-akordioei esker areagotu egin dira.

SAILA	PROIEKTUA
Teknologia berriak	UDAL TELEKOMUNIKAZIOA.EKIPAMENDU MULTIFUNTZIONALA ETA INFORMAZIOA
Lanak eta Mantenua	HIRI-BERRONERATZEA
Osasuna, Kontsumoa eta Merkataritza	MERKATARITZA ERROLDA GAURKOTZEA
Euskara	HERRITARREKIKO ARRETA ELEBIDUNA SUSTATZEA
Giza Baliabideak	AGIRIEI BURUZKO INFORMAZIOA ETA LEKUALDATZEA. PROGRAMAK
Zerbitzuak eta Ingurumena	FATXADAK EGOKITU ETA GARBITZEA HORMAIRUDI BERRIAK EGITEA

	FLORA ETA FAUNAREN INBENTARIOA
Artxiboa	ADMINISTRAZIO ARTXIBOKO FUNTS DOKUMENTALAREN KATALOGAZIOA
	ARTXIBO HISTORIKOKO KATALOGAZIOA
Gizarte Ongizatea	OSASUN- ETA ESTIMULAZIO-SUSTAPENA NAGUSIEN EGUNEROKO FUNTZIOAK GIZARTE ETXEAK
	80 URTETIK GORAKOAK GIZARTE ETXEETARA HURBILARAZTEA
Kontratazioa eta Erosketak	ONDASUN ERANTZUKIZUNAREN ESPEDIENTEAK
Ekonomi Sustapena- Turismoa	TURISMO JARDUERAK (Enbaxadoreak + Bisitaldi gidatuak)
Kultura	UDAL LIBURUTEGIA
Drogamenpekotasuna	DROGOMENPEKOTASUNA PREBENITZEKO SUSTAPENA ESKOLA MAILAN
Idazkaritza	IDAZKARITZAKO ADMINISTRAZIO ESPEDIENTEAK
Parte-hartzea eta Berrikuntza	PARTE-HARTZE ESKOLAREN DINAMIZAZIOA

Lanbideren webgunean ikusgai dauden zereginak hauexek dira:

ZEREGINAK	LANGILE KOPURUA
KOMUNIKAZIO SISTEMETAN ETA INFORMATIKAN ADITUA	2
ZURGIN OFIZIALA	2
IGELTSERO OFIZIALA	8
ITURGIN OFIZIALA	2
ARGIKETARI OFIZIALA	4
MARGOLARI OFIZIALA	14
GIDARIA	3
DUMPER GIDARIA	2
OBRA-ARDURADUNA (KOORDINATZAILEA)	2
ZUZENBIDEAN LIZENTZIATUA	2
TEKNIKARI TALDE-KOORDINATZAILEA (ARTE EDERRETAN LIZIENTZIATUA)	1
ADMINISTRARIA	6
GIZARTE-ETA KULTURA-ERAGILEAK	6
HISTORIAN LIZIENTZIATUA	2
GIZARTE LANGILEA	3
EUSKARA TEKNIKARIA-ITZULPENEAN LIZENTZIATUA	1

MENDEKO BANATZAILEA	1
TEKNIKARI ESPEZIALISTA DROGOMENPEKOTASUNEAN	1
PARTE-HARTZERAKO ESPEZIALISTA	1
BIOLOGOA	1
SOZIOLOGIA/PSIKOLOGIAN LIZENTZIATUA	1
TURISMO INFORMATZAILEA	2
GUZTIRA	67

ESKAINNTZA GUZTIETAKO BETEKIZUN KOMUNAK

- Enplegugabeak eta Lanbiden izena emanda izatea
- Portugaleten erroldaturik izatea
- Toki Entitateek ezin izango dituzte aurreko deialdietan hautatuak izan direnak kontratatu, salbu eta hautagairik ez badago.

- **Ondoko kolektibo hauetako batekoa izatea:**
 - ✓ DSBE-ren titularrak izatea (% 30ekoa gutxienez)
 - ✓ Emakumeak (% 40koa gutxienez)
 - ✓ 35 urtetik beherako enplegugabeak izatea
 - ✓ 45 urtetik gorakoak izatea eta kontratazio-dataren aurreko 180 egun lehenago enplegugabe gisara izena emanda izatea.
 - ✓ 55 urtetik gorakoak (% 15ekoa gutxienez)
 - ✓ Iraupen luzeko enplegugabeak: Kontratazio-dataren aurreko 540 egunetan enplegugabe gisara izena emanda izatea, baldin eta aldi horretan 360 egunez gutxienez enplegugabe egon badira.
 - ✓ Gizarte-bazterkerian daudenak(Planerako Lanbideren Arautegiaren arabera).

Hautatutako parte-hartzaileei lan-kontratua formalduko zaie iraupena lanaldi-erdiko sei hilabetekoa delarik.

GAZTEENTZAKO PROGRAMA BEREZIA

GAZTEEN BETEKIZUNAK:

- 16 urtetik gorakoa izatea eta 30 urtetik beherakoa.
- Enplegugabe egotea eta izena emanda egotea eta alta eginda izatea Lanbiden enplegu-eskatzaile gisara jardun beharreko lanpostuarekin bat egiten duen hezkuntza maila izanda.
- Gazte Bermearen Sistemari izena emanda izatea.
- Portugaleten eroldaturik izatea.

PROIEKTU BIETARAKO:

Portugaleteko Lanbide Enplegu Bulegoak urriaren 24an eta 31n emango du eskaintzen berri.

Betekizunak betetzen dituzten eskaintzetan eman behar dute izena interesdunek. Ondoren, Lanbidek egingo du hautagaien egokitasunaren aurre-hautabidea.

Hau guztia Udal webgunean eta Herritarren Informaziorako Pantailan jakinaraziko zaie herritarrei. Halaber, paperez Udal eraikinetan ere egongo da eskuragarri, hau da, Udaletxean, Santa Klara kulturtegian, Udal liburutegian, Pando Aisian eta Zubi Alden, Lanbideren bulegoan eta Behargintzaren egoitzan.

Era berean, Behargintzako erabiltzaileei bidaliko zaie mezu bat jakitun egon daitezen.